

Bertsolaritza eskola ordutan Lautadako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, Oihane Pe-
rea, klasea ematera etorri dira bi astez be-
hin, Lautadako 4 ikastetxeetara.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin
eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide
batez hainbat bertso emanaldi burutu di-
tuzte, azkena Ekainaren 4ean egin zuten
denek batera Aguraingo Harresi aretoan.

GU ERE BERTSOLARI programa
"bertsolaritzaren curriculum" lanean
oinarritzen da eta lau eremu lantzen
ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZ-
KUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSO-
NAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Agurain: Lope de Larrea
ikastola eta Lautada ikastola

Araia: Araia Eskola

Dulantzi: Dulantzi Eskola

GU ere bertsotan



Lautadan... txindurriak ere bertsotan!

ZALDUONDOKO bertso-eskola

HAUR/GAZTE: Udaletxean. La-
runbatetan, 16:30-17:30 (2 talde)

AGURAINGO bertso-eskola

HELDUAK Ostiraletan, 18:00etatik 19-
:30etara hamabostean behin.

HAURRAK: ostiraletan, 18:00-19:00.

ASPARRENGO


bertso-eskola

HAURRAK: 2015-2016
ikasturtean ordute-
gia zehazteko.



POTOAK HANKALUZETAN

4BE-ren eskutik: Bertso-irratzaioa



OSTEGUNETAN 18:00etatik 19:00etara
TXINDURRI IRATIAN 92.0fm

Gabonetako bertso abentura ALTSASUN

Non, eta Nafarroan (baina urrunegi joan gabel!) izan da azkenekoa. Altsasuko "Otadiako Santo Kristo" aterpetxean elkartu ziren, joan den abenduaren 26tik 28ra, 8 eta 12 urte arteko 22 ume. Gehienak Arabako Lautadakoak, eta baita Mendialdekoren bat ere. Bertsoak askotarako eman dezakeela erakusten dute begiraleek antolatutako ekintzek: bertso-misiotan aritu ziren, altsasuar guztiak harrিতuta uzteraino; antzezle, dantzari eta bertsolari "profesional" izan ziren, 10 minutuz; kanta bat egin zuten; bertso-afari bat zer zen probatzeko aukera izan zuten...

Soila izango da bertsoa, baina baita moldagarria ere. Badu jendea elkartzeko gaitasuna, eta aste-buru zoragarri bat igarotzeko aitzakia ere eman dezake.



Lautadako ikastetxe guztiak bertsoan HARRESI ARETOAN

Maiatzaren 8an Lautadako bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietako gazteen zat bertso saioa izan zen Harresi Aretoan. Ruben Santxez bertsolariarekin udaberrian zehar egindako bertso tailerraren amaierako ginda.

Bertsolariekin batera oholza eta butakak tartekatu zituzten lautadako gazteek.



Ekainaren 2an lehen hezkuntzako ikastetxeetako 5. eta 6. mailako ikasleen txanda izan zen. 200 ikasle inguruk parte hartu zuten topaketan eta gela bakoitzak bere emanaldia eskaini zuen: bertso-ipuina, asmakizunak, txontxongiloak, bertso-rap eta oporrei ongi etorria emateko bertsoekin osatutako emanaldi anintza.

Zorionak egindako lanagagatik!



Lautadako bertso-eskolartekoa Maiatzean

Maiatzaren 16an Lautadako gaztetxo eta gazteen topaketa izan zen Zaldundo Lazarraga jauregian. Aguraingo eta Zaldundoko bertso bertso-eskolako haurrek bakarka zein taledean kantatuz gozatzea zer den ondo baino hobeto erakutsi zieten hurbildu ziren guraso, senide eta lagunei.

Irati Ruiz de Pinedo eta Markel Yoller sailkatu ziren Kanpezuko finalerako.



Bertsoak Lautadako bazter guztietan 2014-2015 ikasturtean

BARRUNDIA

2014/10/4 Txapelketa. 3. aurre-kanporaketa

2014/10/4 Txapelketa. 4. aurre-kanporaketa

ZALDUONDO

2014/11/22 Bertso-bazkaria

2015/5/16 Eskolarteko Txapelketa.

DULANTZI

2014/12/2 Bertsolaritza, zer da hori? tailerra

2015/1/25 Txapelketa. 1. finalurrekoa

ARAI

2014/8/15 Andra Mari jaiak. Plaza librea

2014/11/14 Bertsolaritza, zer da hori? tailerra"

2015/3/20 Bertso-poteoa

LANGARIKA

2014/9/20 Bertso-pilota eta bertso-kantu bazkaria

AGURAIN

2014/10/7 Aguraingo jaiak Azoka eguna

2014/11/18 Bertsolaritza, zer da hori? tailerra"

2014/11/28 Plaza librea

2015/3/14 Bertso-korrika. Bertso-saioa

2015/3/27 Korrika Kulturala. Bertso-hop

2015/5/8 DBHko Ikasleentzako bertso-saioa

AZAROAK 22
BERTSO-BAZKARIA
ZALDUONDON
eman izena azaroaren 20a baino lehenago
(15€) 615 758844/608 088648

Antolatzailea:
Babesleak:

BERTSO-ESKOLAREN URTEURRENA



Gure eskualdeko txoko gehienetara heldu da bertsolaritza ikasturte honetan, era askotako publikoarengana heldu da formatu ezberdinetako bertso saioak tarteko.

2014ko uztailetik gaur arte 16 emanaldi egon dira lautadan: lagun arteko saio, jaialdi, txapelketa eta sariketak.

Eskualdeko bizitza kultureko parte da bertsolaritza, udal, elkarte edo bertso-eskolaren eskutik.

ESKERRIK ASKO
GUZTIOI

LAUTADA eskolarteko finalean KANPEZUN



Maiatzaren 23an KANPEZUN izan zen Arabako bertso-eskolen festan ere presente izan ziren lautadako bertso-eskolako kideak. Saio ederra eskaini zuten Irati Ruiz de Pinedo zalduondoa-rrak eta Markel Yoller Illarduiako gazteak. Soinu tresna ta guzti hurbildu ziren haur, guraso eta gaz- teek egun pasa polita izan zuten, bertso saio, kalejira, bazkari herrikoi eta bertso-eskolen showak tarteko. Hurrengo urtean gehiago eta hobeto. Zorionak guztie!

Zalduondoko bertso-eskolak 5 urte

Ikasturte honetan 5 urte bete ditu Zalduondoko bertso-eskolak. Oinez ibiltzen ikasi zuen lehenbi- zi eta idazten eta irakurtzen ika- si orduko bazekien bertsoan.

Hori ospatzeko topaketa eta bazkari ederra antolatu zen Ze- ledon toki elkartean. Herritarrek eta bisitariak bapo gozatu eta luzatu zuten, gonbidatu berezi eta guzti, urtebetetze festa



ZORION/AAAAAAK!!!!

Lautadako bertso-eskola
(Agurain, Asparrena eta Zalduondo)
Arramel kalea z/g 01200 AGURAIN

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba